



## **AEKk 24. KORRIKAre unitate didaktikoak plazaratu ditu, Euskal Herriko Ikastolekin elkarlanean**

### **Besteak beste, helburu dute euskararen erabileran eragitea eta euskal kultura transmititzea**

Unitate didaktiko horiek [KORRIKAre webgunean](http://www.korrika.eus) daude eskuragarri, gero Euskal Herri osoko ikastola, eskola eta euskaltegietan zabaltzeko.

Bi motatakoak dira: batetik, ikastetxeetarako ikasmaterialak, Euskal Herriko Ikastolekin elkarlanean sortuak; horiek adinaren arabera sailkatuta daude, Haur Hezkuntzatik Batxilergora.

Bestetik, euskaltegietarako atazak, AEKren Didaktika Sailak prestatuak; horiek mailaka antolatuta datoz, A1etik C1era. Azpimarratzekoa da materialetako bat berezia dela: diseinatuta dago entzumen arazoak zailtasunak izan ditzaketen pertsonen erabili ahal izateko.

Unitateok hainbat berrikuntza dakartzate, betiko helburuak izan arren: euskararen aldeko jarrera zabaltzea, gure hizkuntzarekiko kontzientzia suspertu eta haren erabileran eragitea, euskal kultura transmititzea eta bertoko erreferente kulturalak ezagutaraztea; baita, nola ez, KORRIKA iragartzea ere.

**Bideo-erreportajea bihar, urtarrilak 23, argitaratuko dugu [www.korrika.eus](http://www.korrika.eus) webgunean.**

Aurkezpenaren harira, elkarrizketa laburra izan dugu Iñaki Zapirainekin eta Jon Alustizarekin, Orereta ikastolako irakasle eta ikastetxeetarako unitate didaktikoen egileekin. Era berean, AEKren Didaktika Saileko kide Amaia Lopez de Luzuriagarekin ere mintzatu gara euskaltegietarako materialen inguruan.

Zapirainek eta Alustizak edizio honetako unitateen berrikuntzak nabarmendu dituzte. Alde batetik, *Korrika Txokoa* izeneko jarduerak: zirkulazio autonomoan aritzeko materiala da,



ikasleek beren nahien eta erritmoen arabera. Beste batetik, *Hurrengora arte!* jarduera dugu, KORRIKA amaitu ondoren gauzatzekoa; KORRIKAn bizi izandako esperientziak partekatzea izango du helburu.

López de Luzuriagak aipatu du euskaltegiatarako hiru materialeko sorta prestatu dutela: *Badator 24. Korrika!*, *24. Korrikaren ibilbidearen jolasa* eta *Korrika historian*. Azken hori bereziki egokituta dago hezkuntza arruntean zailtasunak izan ditzaketen pertsonak erabili ahal izateko.

*Lotura hauetan dago unitate didaktikoen inguruko informazio osagarria:*

**[Ikastetxeetarako unitate didaktikoak. Informazio gehiago.](#)**

**[Euskaltegiatarako unitate didaktikoak. Informazio gehiago.](#)**

Argazkian, Euskal Herriko Ikastolen Lehendakari Nekane Artola, Korrika arduradun Ane Elordi, AEKren Nazio Kontseiluko kide Aize Otaño, AEKren Irakaskuntza Zerbitzuaren arduradun Maialen Otegi eta Iñaki Zapirain zein Jon Alustiza, ikastetxeetarako unitate didaktikoen egileak.